

# EUROPEAN DAYS OF LOCAL SOLIDARITY

#LocalSolidarityDays  
[www.localsolidaritydays.eu](http://www.localsolidaritydays.eu)



2026ko Azaroaren  
**15tik 30ra**

## Nola egin bat 2026ko Tokiko Elkartasunaren Europako Egunekin?

### Kanpaina

Hiriak eta eskualdeak dira garapen iraunkor globala lortzeko egin beharreko bidearen gidari! Nola egiten dute hori, baina? Mundu osoko hiri eta eskualdeekin egiten dituzten nazioarteko lankidetzak-proiektuen bidez eta iraunkortasunari lotutako erronkak egunez egun irtenbideei begira kudeatuz.

Tokiko Elkartasunaren Europako Egunek (EDLS ingelesez) Europako hiri eta eskualdeei dei egiten diete beren herritarrei kontzientzia harraraz diezaieten garapen iraunkor globalaren erronkez eta ekiteko premiaz.

**2026ko edizioak azaroaren 15tik 30ra iraungo du. Animatu eta etor zaitez!**



### Mezu-gakoak

**Europako hiriek eta eskualdeek indartu egiten dute herritarrek garapen iraunkor globalarekin lotutako gaiez duten ezagutza.**



#### EKIMENA!

Jendaurreko ekimenak antolatzea eta sustatzea, **garapen iraunkor globalarekin lotutako erronkez eta elkartasunaren garrantziaz informatzeko eta eztabaidatzeko, hiriak nazioarteko lankidetzak-proiektuetan duen esperientzia azpimarratuz.**

**Europako hiriek eta eskualdeek babestu eta sustatu egiten dituzte tokian eragin handia duten garapen- hezkuntzarako eta herritarren partaidetzarako ekimenak.**



#### EKIMENA!

Gizarte zibileko erakundeekin, herritar taldeekin eta ikastetxeekin lankidetzan jardutea, herritarren konpromiso aktiboa eta elkartasuna irmoki sustatzen duten **sentsibilizazio-kanpainak, jendaurreko ekimenak eta trebakuntza-ekimenak antolatzeko eta babesteko.**

**Europako hiriek eta eskualdeek garapen iraunkorraren aldeko konpromiso politikoa sustatzen dute nazio, Europa eta mundu mailan.**



#### EKIMENA!

Europar barrena alkateen eta tokian tokiko ordezkarien arteko eztabaida sustatzea, eta nazio eta mundu mailako erabaki-hartzaileekin trukeak sustatzea **elkartasunak eta lankidetzak «deszentralizatuak»** tokian tokiko eta mundu mailako garapen iraunkorrean duten **eragin positiboaren** gainean.

#LocalSolidarityDays



# #LocalSolidarityDays



## Eragin zure hiriak edo eskualdeak parte har dezan!

Planifikatu zure EDLS ekimena 2026ko azaroaren 15tik 30ra.

### Zer da EDLS ekimen bat?

- Europako herri batek edo eskualde batek, edo tokian tokiko eta eskualde mailako gobernuen elkarte batek (besterekin batera) antolatzen duen ekimen bat da.
- Aukera bat da herritarrentzat, tokian tokiko eta eskualde mailako hautetsi eta ordezkariarentzat, gizarte zibileko erakundeentzat eta tokian tokiko beste eragile batzuentzat ikasteko, harreman- trukeak izateko, eztabaidatzeko eta ospatzeko.
- Europako hiriek eta eskualdeek garapen iraunkor globalari egiten dioten ekarpena jartzen du erdigunean, arreta berezia jarritz beren nazioarteko lankidetzan eta hirien arteko aliantzan.

## 2024ean...

30

hiri eta eskualde bakoitzeko

80

ekintza antolatu zituzten

2

asteetan

## Egin bat kanpainarekin!

- **Erabili EDLS kanpainako tresnak** edo gehitu EDLS logotipoa zure materialari zure ekimena sustatzeko eta beronen mezuak indartzeko. Orobat sustatuko da EDLS webgunearen bidez ([localsolidaritydays.eu](http://localsolidaritydays.eu)) eta Twitter kanpainaren bidez ([#localsolidaritydays](https://twitter.com/localsolidaritydays)).
- **Izenpetu EDLS ituna zure hiriak** balio amankomun hauen alde egiten duen konpromisoa formalizatzeko: demokrazia, elkartasuna, erantzunkidetasuna eta lankidetzak. Europako homologoen babesak areagotu egin dezake zure hiriak garapen iraunkor globalaren alde hartzen duen konpromisoaren aitortpen politikoa eta soziala.
- **Egin bat** aldizka-aldizka tokian tokiko ikuspegitik sentsibiltatea areagotzeko tresnez, garapen-hezkuntzaz eta garapen iraunkorraz ideiak trukatzeko, ikasten eta eztabaidatzeko aritzen diren **Europako hiri eta eskualdeen komunitatearekin.**

Informazio gehiago nahi izanez gero  
[www.localsolidaritydays.eu](http://www.localsolidaritydays.eu)

[platforma@ccre-cemr.org](mailto:platforma@ccre-cemr.org)

Sare sozialetan argitaratu  
[#LocalSolidarityDays](https://twitter.com/localsolidaritydays)

EDLSak PLATFORMAK antolatzen ditu: hau da, hirien arteko eta eskualdeen arteko garapen-lankidetzan diharduten Europako hiri eta eskualdeen eta haien elkartearen sareak. Ekimen hau CEMR-PLATFORMAren eta Europako Batzordearen artean izenpetutako Lankidetzak Estrategikorrako Hitzarmenaren esparruan garatzen da. Europar Batasunak kofinantzatzen du.